

GUGGENHEIM

Ateak zabalik egongo dira museoaren lagunentzat

Erredakzinoa |

Datorren astelehenean, abenduaren 9an, hain zuzen, Ateak Zabalik egun berezia antolatu dabe Guggenheim museoko arduradunek. Egun horretan museoaren lagunek bisita berezia egiteko aukerea izango dabe. Museo-a zabalik egongo da goizeko 11:30etatik 14:00ak arte, eta arrastiko 16:30etatik 20:30ak arte.

Izan be, bisita horren bidez, hain ezagunak ez diren eremu batzuk eza-gutu ahal izango dabe museoaren lagunek, besteak beste, ardura arloa, erregistroarena, erakusketaren muntaia, mantentimendua, hezkuntza eta liburutegia.

Beste alde batetik, hara hurbildutako lagun guztiek kafea doan hartu ahal izango dabe.

Museoko arduradunek gogoratu dabenez, pasau dan urteetan «oso harrera ona izan eban Ateak Zabalik egun bereziak».



EGUNKARIA

LAN GATAZKAK. Euskalduna ontzian jardun eben beharginek gogor borrokatu ziran euren lanpostuak defenditzeko.

Ontziola jauregi bihurtuta

EUSKALDUNAREN IBILBIDEA. Maite Ibañez, Jose Luis Ibarra eta Marta Zabala historiagileek idatzitako 'Euskalduna' liburua argitaratu dau Diputazinoko Kultura Sailak

CB**CANAL BIZKAIA**
Bizkaiko Telebista**ABENDUA 06 OSTIRALA**

09:00	LOS MAPACHES
09:30	DOCUMENTAL: "VETE ENTERÁNDATE"
10:00	MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7" (R)
11:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA" (R)
11:30	SERIE: (Cap 60) "ENTRE DOS FUEGOS"
12:00	TELENOVELA: (Cap 58) "LA INTRUSA"
13:00	ELLA JARDÍN
13:30	CALIDAD DE VIDA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:40	GAME OVER
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	MAGACÍN: "CADA TARDE"
17:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA"
17:30	HECHO POR ELLA
18:00	TELENOVELA: (Cap 26) "MARIA BELÉN"
19:00	VIVIR RODANDO. "Nómadas del viento"
20:00	JUEGAS EN CASA
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	METEORIK
22:00	BILBAO CONFIDENCIAL:
22:30	CINE: "LIBRE DE SOSPECHA"
00:10	BIZKAIA GAUR 3ª EDICIÓN
00:15	ULTIMAS NOTICIAS LOCALIA
00:30	CINE: "AMOR Y SECUESTRO"
02:30	40 TV. CANAL MUSICAL

Ainhoa Güemes |

Gizarte modernoago batera doan abiadura handiko trena ez galtzeko edo, Bilbo zaharraren hamaika aurpegi galdu dira bide ertzean, eta egungo uriaren eraldaketa jente gehienek gustokoa ei dan arren, beste herritar batzuen ustetan Bilbo-ren desitxuraketa dakar diseinutako zaharbarritze prozesuak.

Bizkaiko Foru Aldundiak *Euskalduna* izenburuko liburua argitaratu barri dau. Liburu horren bidez, lehengo garaia eta gaur egungoaren arteko zubiak eraiki nahian, bai garai bateko ontziolari bai egungo Kongresu eta Musika Jauregiari be omenaldia egin gura deusela azaldu eban Ana Madariagak Kultura Saileko diputatuak atzo, Euskalduna Jauregian eskainitako prentsurrekoan.

Izan be, Maite Ibañez, Jose Luis Ibarra eta Marta Zabala historiagileek idatzi daben *Euskalduna* liburua «dokumentazi-

no eta historia aldetik, lan handia da», eta lehengo ontziolaren ia mende bateko ibilbidea jasoten dabe bertan. Hainbat dokumentazio fondotan ataratako irudi, argazki eta kontakizunen bitartez, itsasontzien egintzaren ganeko informazio zabala emoten saiatzen dira liburuaren egileak.

Alde batetik, Ramon de la Sotaren barri emoten dabe, «izan be, bera izan zan egitasmoaren eta eguneroko jardunaren sustatzaile nagusia»; eta bestetik, Euskalduna ontzian jardun eben beharginen oroi-menerako tarte bat badago, itsasontzien armamentuan «laguntzaile isilak» izan zirala-ko.

OMENALDIA

Bai garai bateko ontziolari bai egungo Kongresu eta Musika Jauregiari omenaldia egin gura deute liburuaren bidez

Hiru egileak Deustuko Unibertsidadean Historian litzentziatuak eta Arkeologian diplomatuak dira. Era berean, Euskal Herriko industria ondareko elementu bitxiak dokumentazino-ko hainbat lan egin ditue.

Liburuen argitalpenez gain, ikus-entzunezko materiala be batu dabe, esate baterako, orain dala gitxi, ohorezko aipamena jaso eben *El sudor de nuestra frente* lanari esker, Industria Ondarearen ganeko nazinoarteko jaialdian, hain zuzen.

Langilerien oihartzuna

Euskalduna ontziola 1900. urtean sortu eban Ramon de la Sotak, eta haren familiak eta Aznartarrek gidatu eben. Orduz

LANGILEAK

1900. urtetik itsasontzien eraikuntzan eta konponketan jardun ziran langileak, Euskalduna ontziola 1988an itxi arte

geroztik, itsasontzien eraikuntza eta konponketa lanetan jardun ziran langileak, eta gogor borrokatu ziran 1988an ontziola itxi eta kaleratu ebezen arte.

Bizkaiko ontzi industriak hazkunde ikaragarria izan eban 1960-78 urteetan. 1979an, baina, ekoizpenak behera egin eban, hamar urtean jarraituz. Europak ontzioetatik 8.000 inguru lanpostu desagertzea agindu eban, eta Espainiako Estatuak onartu, Europako Batasunean sartzea helburu nagusia izanda.

Desagertu beharreko lanpostu horietatik 3.400 inguru Bizkaikoak izan ziran. Europak eta Espainiako Gobernuak harturiko erabagi horrek Euskaldunaren behargin guztiei eragiten eutsen; 2300 lanpostu inguru kendu eben, hain zuzen.

1999. urtean Euskalduna ontziola jauregi bihurtu zan, «etorkizuneko isla nabaria» dala dio Ana Madariagak Kulturako diputatuak, eta «uri barrituaren ikurra izatea dauka helburu».